



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2007-11-18

V.URTEA 1.291.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Azoka bereziko babarrunik onena, Mari Karmen Iradi irurarrarena

TOLOSA 3.000 euro eta 10 zentimoren truke erosi du Casa Vergara jatetxeak atzo eginiko enkantean

TXAPELAREKIN DOTOREENAK Txapela nor ondoen jantzi txapelketa ere egin zuten; 5 sari banatu zituzten orotara 4-5



Ezker-eskuin, hiru finalistak: Pakita Rekalde irurarra (bigarrena), Mari Karmen Iradi eta Maria Dolores Eizmendi. N.U.



U. ALGERO

MIKEL OLAZABAL PILOTARIA

«Lesionatu nintzenean izan nuen laguntza asko eskertzen dut»

ARESO Debutatu duenetik punta-puntako partidetan jokatzen ari da aurrelaria 7

Auzolan finalean ariko da baina Abadiñoko hiru taldeek erakutsi dute mailarik onena

IBARRA Euskal Herriko lur gaineko Sokatira Txapelketa jokatu zuten Belabietan 6

Kulturaren aitzakian festa giroa nagusi Amasan, Alegian eta Bedaion

TOLOSALDEA Kirola, irudiak eta gaztain jatea izan dira protagonistak 3

txokoa h

Harpidedun **guztien** artean, abenduaren 2an, Liverpoolko Anfield estadioan jokatu den **Liverpool - Bolton Wanderers** futbol partidarako, **bi pertsonentzako** hegaldia, bi gauerako hotela eta partidarako sarrera pare **zozketatuko** ditugu!

Gainera, Xabi eta Mikel Alonso tolosarren kamiseta bana!



HITZA orain gertuago

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Irabazlearen izena, azaroaren 25ean argitaratuko dugu.

E Eztabaida**Zer iruditzen zaizu
HITZAk abiarazi duen
kazetaritza egiteko modu
berria?**

Politagoa jarri duzue, egia. Era-kargarriagoa. Eta parte-hartzai-leagoa nahi duzue nonbait. Orain irakurleok dugu erronka, benetan parte hartu nahi dugun baieztatuz. Dena den, ukitu batzuk behar ditu. Adibidez, Villabonan, *Azken ordukoak* izenean hiru berri agertzen dira: urrikoa, iraileko eta uztailekoa. Eta Zizurkilén, antzeko parezido. Azken ordukoak ote benetan?

Joxin.

Aurretik idatzi duen Joxinekin guztiz bat nator. Aldaketa txukuna baina *Azken Ordukoak* aldaketaren bat behar du, ez da oso egokia. Eguneratu beharra dago herri gehienetan aspaldiko berriak agertzen baitira sartuz gero. Aldatuko duzuelakoan... Mila esker ta animo!

Amaita.**Tolosabide hartaz:****» Uzturretik****Patziku Perurena**

Goizuetan bizitzen segitu izan banu, Hernani izanen zen. Leitzara etorri eta, Tolosa. Betei mugan. Hizkeraren mugan, historiaren mugan, merkatuaren mugan, bihotzaren mugan... Harantz eta honantz. Goiti eta Beheiti. Bai ederra, beti behera behar hau, atzera goiti etortzeko minakeragina denean...

Tolosara bai!... Batez ere Arrasaten estudiatzan aritu gineneko aldi hartan. Egoki tabernako biltzen ginen. Ostiral iluntzero honuntzekoan, eta jai arratsero harantz abiartzekoan. Orexarrak

izaten genituen gidari. Auto Eskola baitzuten Eskoriatzan, eta haien kotxetan joaten ginen Mondragoiko Eskola Politeknikora, ikastera edo, joan behintzat...

Eta, nola izaten diren gauzak! Orain Hitza, Tolosaldeko Hitz hau, eskuan diseaturik hartzen dudana aldiro, Egoki tabernako ereta hura etortzen zait burura, batez ere igande arratsetakoa. Ez baitzen izaten Tolosa inguruko herririk han aipatzen ez zenik. Denetakoak biltzen baitziren, eta nola jakin gainera elkarren berri!... Eta ni, hantxe, hainbeste kontu morbosoa ezin kontrolatuz, baxter batean "napar kaxkar" paperan,

-hala deitzen baitzidaten ironia maitakor batez-, Eta, noizean behin, xelebrikeriaren bat boteaz, eman egin behar zentzua nere paperari. Gaur ere, halatsu, ulertzen?...

Edoze?... Ez, autobia egin zentrik, nola aldatu diren gauzak!

Apenas oroitzen naizen Tolosako bidez. Orain Donostira maizago joaten baigara kasik. Eta zenbat balio duen bidez!... Batez ere nork bere bihotzez ibilia duenean. Eta isilik beti bidea, eta beti hizketan!... Eta lurra hankapean!...

Naparzubitik honantz pasa eta, Domiko pare hartan jartzen ginen, hargainean erdieseriak, leitzaminez. Zenbat aldiz, inork hartzen ez eta, etsiak hartuak, paper fabrikako paretangeldi geldirik egoten zen galgo xuri lirain hari begira, erreguka: "hi banintz, han nindukek laxter, maleta zar hau harrika tirata!"...

Mondragoetik haraino ere dedo egin. Aurrena Bergararaino. Hurrena Zumarragako bidagurutzeraino. Handik Olaberriko "El Castillo" hotel ondoraino. Han, Urbizu zegamarra gora eta gu behera. Eta noizbaiteko batean, inork Tolosaraino hartu ezkerro, hura poza gurea! Behin Tolosara ezkerro, etxean ginela iruditzen baitziztaigun. Batzutan

banaka, bestetan binaka, eta askotan hirulau lagun: Joxe Balerdi orexarra, Iriarte lehengusuak, bat Elduko eta beste a Elduaingoa, Javier, gero traktoreak azpian harrrapatuta hil zen, gizajoa.

Berastegitik, berriz, oinez askotan. Ilargi bete bete zela, behin. Udatzena, garaitsu hauxe. Airean bezala nenkarren bihotzak maiteminez, haziminez edo auskalo zer minez eta, hura ikara Kami-nerotako zakur zaharrak!... Elur latzarekin ere bai, beste batean. Egin galde bestela Javier Murua lagunari, Bentaberrin katiuska pare nola eman ziguten. Eta handik, tapa tapa, San Antonen goiti, Leitzara. Gaur andre duena, orduan andregai baitzuen. Eztebeneko alaba. Eta nik Zapatene-koa. Zenbat oroipen, Maixux pare, Tolosa bide horretan, eh!...

Zahartzen ari gara. Oroiminak erakusten digu. Mila axalkeria baztertu eta, zinetan bizi izandakora ezin bildu!... Zein ederra den hitza, eta zeinen eskasa!...

K Komikia**Gorka Salaberria****digital**
h

Datorren ostegunean, hilaren 22an, **GARI URANGA** Realeko jokalariekin elkarrizketa digitala. HITZAren erredakzioan izango dugu zuen galderak erantzuteko.

Bidali aurrez zuen galderak tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera.

Egunean bertan ere zuzenean galderak bidali ahalko dituzue.

www.tolosaldeko-hitza.info





Alegiko Kultur Etxean herriko eguneroko bizimodua argazkietan ikusteko aukera izan dute astean zehar. E. EZEIZA



Lau kategori desberdinetan banatu zituzten gaztetxoak herri krosean. N.L.



Bedaioako Mus Txapelketan 16 bikotek hartu zuten parte. Ondoren gaztain-jatea izan zuten. N. URBIZU

Irudia eta kirola aisiatzat hartuta

Kultura » Alegian herriko argazkiak ikusteko aukera izan dute; Amasako festetan krosa eta Bedaion musa izan dute, besteen artean

NEREA URBIZU

Jolasa eta irudia izan ziren atzo Amasan, Alegian eta Bedaion izan zutena. Alegian Azaro Kulturaren baitan herriko jendearen eta bizimoduaren isla diren argazkien proiektioa izan dute aste osoan zehar, eta jende ezaguna agertzen zenez, asko izan dira hurbildu di-

renak; Alegiko argazkizaleen elkartea arduratu da argazkiak egitez eta biltzez.

Amasako festetan, berriz, krosak eman zuen kalera ateratzeko aitzakia. Azaroko egun atsegina izan zela kontuan izanik («beti euria edo haize gaiztoa egiten baitu» antolatzaileen esanetan), 106 hau-

rrek hartu zuten parte bertan. Zikloka izan zen sari banaketa eta nahiz eta denak «ondo» ibili, lehenengo iritsitakoan aipamena egin zuten: 5 urte azpikoetan, nesketan Elisabet Larraña, Marta Castellano eta Maialen Perez izan ziren lehenak eta mutiletan, Kepa Otegi, Aner Gomez eta Lander Labaka. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoetan, Iraia Irazusta, Nagore Muriel eta Naroa Iraola nesketan eta Asier Ugartemendia, Oihan Jauregi eta Alex Alvarez mutiletan izan ziren. 3. eta 4. mailakoetan,

berri, Alazne Larraña, Garazi Otegi eta Oihane Aiesteran eta mutiletan, Ander Zuriarrain, Ander Iparragirre eta Jose Migel Bezanze; azkenik, 5. eta 6. mailakoan artean, nesketan, Mireia Bidaurre eta Irati Artola eta mutiletan, Andoni Arrospide, Andoni Urbietta eta Urki Galarraga izan dira azkarrenak.

Hotzaren aurrean gaztainak

Bedaion, berriz, festa berezia zuten: gaztain-jatea izan zuten gauean. Arratsaldean lau danbolin ate-

ra zituzten, lana izango baitzuten ondorengo orduetan, 65 lagun inguru elkartu baitziren Artubi elkartearen. Arratsaldean jokuak, baita mahaian goxo-goxo egotekoak. Musean aritu ziren, lehian, eta ondoren Toka Txapelketan pilotalekuan.

16 bikote aritu ziren musean eta Azpeitiatik, Alegiatik, Amezketatik eta Pasaitik ere jendea hurbildu zen jolastera. Bedaion hilabetearen behin gutxienez ekitaldi bat egiten dute, eta abenduko kasuan, baserri baserri joango dira kantatzen.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

ANA ISABEL BELLOSO CEA

Herenegun hil zen

Une latz hauetan zuekin gaude



Samaniego herri ikastetxea

TOLOSA
2007ko azaroaren
18a

Babarrunaren azoka berezia eta hotza atzok protagonistak izan ziren

Tolosa » Triángulon herrikiak, mondejaiak, edota postreak topatu ahal izan ziren; nola ez babarruna zen protagonista

PARLO ALBERDI
Atzoko azoka oso lasia hasi zen, hotza zela-eta (0 graduek arte) hurbil ibili zen 13:00 arte). Gasaen botatako izotzak eragina izan zuen erokengian, eta ez zen izan goiza erokiduraz jendok sinatu zela. Babarrunaren azoka bereziak eragina izan zuen postuegan, eta bai Zerkausion baita Triángulon ere, babarrun asko ikusi genuen salgai. Apatzokoz zerkausko barzakien zerrenda, aza, azaloe, porruak edo eta patatuekin babarrunarekin batera, eta Triángulon txerrikiak, mondejaiak, odolikiak, ardoak, piperrak, oronikiak edota postreak.

Perretxiko zerrenda ere ez zen makala izan, ondorez, zinez eta guzuz osatirik. Prezioak ez ziren aldian.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza		
Landina	10,00	-
Ziklamena	5,00	-
Xarabota	4,00	6,00
Txakur irabehina	2,50	-
Sempresivias	6,00	-
Gerbera	12,00	-
Lobelia	4,50	-
Bola	3,00	-
Sallia	100	120

Berlato produktak

Onkidea	20,00	28,00
Garnua	14,00	-
Gibelurdina	20,00	-
Nikaloa	15,00	-
Gastaina	3,00	-
Urrak	2,00	3,00
Pikua	2,00	-
Maitakana	6,00	-
Gastaina	3,00	-
Ibarako piparrak	4,00	-
Ogi ekologikoa	3,20	-
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Azenarioa	1,20	4,00
Ardi gazta	14,00	18,00
Arnatzak	1,80	2,40
Behi gazta	7,00	7,50
Txikoria	1,00	1,25

Produktu ekologikoak

Barbatua	1,60	6,00
Arbi morea	4,00	-
Zeta	2,00	-
Erremolatxa	1,60	-
Dilatak	2,40	-
Kogolito	1,00	-
Aharri gazta	3,00	-
Marmelada	3,00	3,60
Azukrea	3,35	-
Tipula	1,75	2,00

Mari Karmen Iradik irabazi du Babarrun lehiaketa

Tolosa » Iradiren lekalea 3.000 euro eta 10 zentimoren truke erosi du Casa Vergara jatetxeak, atzo goizean egindako enkantean

ESTIPEZEA
Tolosako Babarrunaren Festak arrakasta duela zalantzarik ez dago. Izan ere, atzo goizean tenometroak zero graduren hultan bazabiltzan ere, jenduegi hurbildu zen Triángulo Plazara, lekale lehiaketa eta azoka berezia ikustera.

Goizean goiz, 07:30ean jarri zituen helterak sutan Roberto Ruiz sukaldariak, beranduratu baitzen babarrunak sukaldatzeaz. Babarrun gurtiak batera, denbora berean eto osagai berdekin prestatu zituen. Denera 16 lagunak aurkeztu zituzten beraien babarrunak lehiaketara. Baina epaimahaiaren iritziz, Mari Karmen Iradi irurarenak izan ziren onenak. Honek, Jokin Beldarratz alkatearen eskutik pasatu zuen saria Bigarren, Pakita Rekalde izan zen, hau ere Irurakoa. Hori, Alazne Uribearen, Kaitza Paredakokak eman zion garairuara. Hirugarren saria Zizurkilera joan zen, Maria Dolores Eizmendirengana.

Epaiak lasetas honako hauek aritu ziren: Andoni Adaritz eta Marias Gorrotxategi sukaldariak alde botetik, eta Rafael Garcia Santos, Iñigo Galatas, Juanjo Aguirretza eta Mikel Ezkiaga gastronomiako kritikoak besteak. Epaimahaiak dastatzeaz gain, herriarek ere jai ahal izan zituzten babarrunak. Izan

ere, Babarrun kofradiak 50 kilo babarrun prestatu zituzten, 2.000 euro.

3.000, 10 euro babarrunagatik
Babarrun onenaren saria irabazi ondoren, Mari Karmen Iradiren lekaria enkantean ateratu zen. Hala, 3.000 euro eta hamar zentimoren truke erosi zituen Casa Vergara jatetxeak izan hiru kilo babarrun. Diru hau Tolosako Jesuitinen «GKEak» Malin egindako duen nekazal eskola baterako izango da.

Azoka berezia
Babarrun lehiaketaz gain, azoka berezia ere izan zen Triángulo plazan. Bertan, falta ezin zen Tolosako babarrunekin batera, Herrialede Katalinako motero eta gaurer babarruna aurki zitakoen. Baita, piperrina, odolostak, azak, Adunako Zabala eta Aburuzko sagardoa eta ohiko postreak zuden.

Xapela nork hobeto jartzi
Elozegi itegiari esker, Tolosak txapelgintzan duen tradizioa konnantu hartuta, ezin falta herriari hobeto lehiaketa bot. Hasi da, txapelondoen jantzetan, bederatzigarren aldiz, atzo jokatu zen Txinparta elkartean, Txapelak nork hobeto jartzi nazioarteko lehiaketa. Hemen txapela estilik handi



Epaiak lehiaketa dastatzeaz gaurer. N. URREZTU



Casa Vergara kofradia erosi du lekale irabazlea, 3.000, 10 euren truke. N. URREZTU

«Maitasun handiz egin behar da lana»

MARI KARMEN IRADI Babarrun lehiaketako irabazlea

Irura » Bigarren aldiz, Babarrun Elkarteak Lehendakaria den Mari Karmen Iradi irurarrak irabazi du lehiaketa

ELEZEA

Duela hiru urte bezala, Mari Karmen Iradi irurarrak irabazi du Babarrun lehiaketa. Astearen artean, bera da bigarrena Tolosako Babarrunaren Kofradiako Lehendakaria.

Zin da Babarrun Lehiaketa irabazteko sekretua?
Hasieratik maitasun handiz egin behar da lana. Urteko prestaketa, babarruna ondo zaindu, eta bere puntuan dagoen bitartean.

Eguraldi aldeak, zer moduzko ur-



N. URREZTU

ten ez eta hazi atzeratu egin zen. Gero uda ere horrela izan da, eta orain, biltzeko garaian euria dago du. Ondorioz, besteean baino be-

randuago bildu behar izan dugu babarruna.

Zenbat kilo babarrun erori dituzte?
Oraindik ez dakigu ziur, baina 1.000 kilo inguru bilduko ditugu. Izan ere, sail handiak landu ditugu.

Babarrunaren elkartea sortzeko zain orain elkarri dituzte?
Elkartea izateak babarrunari errespetu itzela suposatzen du. Lehen eskonin babarrun ale sakdi zitekeen Tolosakoaren izenaren, baina orain kontrol bat eramanen da. Elkartean hazia Gipuzkoako gurtian banatzen da.

Zer du Tolosaldeko babarrunak, besteak ez dutena?
Nire ustez, zapore berezia du he-mengo babarrunak. Salda lodiegia ateratzen zaio eta azala ere finagoa du.

» SARI BABAKETA

Lekale onenaren saria

- 1. postua: Mari Karmen Iradi (Irura).
- 2. postua: Pakita Rekalde (Irura).
- 3. postua: Maria Dolores Eizmendi (Zizurkil).

Enkantea

• **Casa Vergara.** Donostiako jatetxeak erosi ditu Mari Karmen Iradiren babarrunak, 300 euro eta 10 zentimo ordaindu ditu ia hiru kiloren truke.

» TXAPELA JARTZEA

Gizonezkoak

- 1. postua: Pablo Azurza.
- 2. postua: Manuel Tolosa.
- 3. postua: Xabier Garkano.

Emakumeak

- 1. postua: Desire Gonzalez.
- 2. postua: Pakita Rekalde.
- 3. postua: Anjela Etxaburua.

Parte-hartzaile zaharrena

- 89 urte: Florentino Gastesi.

Parte-hartzaile gazteena

- 5 urte: Lucia Aranzabe.

Elkarteko kideetan

- 1. postua: Antonio Merino.
- 2. postua: Jon Ormazabal.
- 3. postua: Xose Oña.

denarekin jantzen zituztenak sarritu zituzten. Orozko, bost sari ezberdin banatu ziren. Txapela eramatearena, askoren ustez helduen gauza bada ere, atzo Pablo Azurzak erabaki zuen hau ez dela herriak. Gizonean artean, egizkor honek irabazi baitzuen atzo lehiaketa. Gainera ez da lehen aldiz, izuz ere berak irabazi baitzuen. Enakantean Desire Gonzalez izan zen garaile.

Parte-hartzaile zaharrenaren saria Florentino Gastesi eraman zuen, bere 89 urterekin. Gaztearena berriz, bost urteko neskatxo baten izan zen, Lucia Aranzaberen izena. Eguneko azken saria, txapela ondoren jarri zuen Txinparta elkarteko bazkidearentzat izan zen, Antonio Merinoarentzat hain zuzen ere.

Duako babarrun herrikoa

Alde Zaharra jatetxe handi bilakatu zen atzo. Ezpeleta elkarteko ostalarik, herriko kaleetan, 500 laguntzariko duako babarrun jena eskaini zuten. Ekimen honetan parte hartu zuten honako jatetxeak: Laster, Karmenka, Beri Alai, Astosarrak, Orbea, Paka, Elorri Iratxo, Itatza, K-2, Iruña, Elurra eta Biktorek.

Dantza ikuskizuna

Atzoko egunari amiera emateko, gaur, Tolosako Herrialede Katalinako eta Valladolideko dantza taldeak izan ziren beraien ikuskizuna eskaintzen. Beotibar pilotalekuan.



Nork txapela ondoen jartziiko irabazleak. N. URREZTU



Jende ugari ibili zen babarrunaren azokako postuak ikusten. N. URREZTU

POLICLÍNICA GIPUZKOA, ERREFERENTZI-PUNTUA.

Guru kirurgie-eraklin berrak esker, abangoardiako zerbitzu medikoak, gaitaroen errotasuna eta bigarritze-ekialdeak hobitu egingo dira. Berritxo ere, osasun-ahurrak dagokionez, Policlínica Gipuzkoako erreferentzi-puntua da, bai Gipuzkoan, bai Euskadin ere.

POLICLÍNICA GIPUZKOAKO KRURGIEN-ERAKLIN BERRIA

9.000 m² gehiago

BARBARA HERRAI ALBAREKATUENETARAKO

INTENSIBATZIO 12 OHEZKOI-BELA

3 ERMITZE-LEKUA, OBSTETRIKIA-INTENSIBATZIO 12 OHEZKOI-BELA

AKESIAK IRONDO ERREKUPERAZIOA 15 POSTU

18 BELAKO ERROKERO OSPITALIA

POLICLÍNICA GIPUZKOA

más para ti, salud zure osasuna, gure ardurua

www.policlinicagipuzkoa.com

TEL.: 943 002 800

Auzolan taldea Oartzungo finalean ariko da igandean

Ibarra » Kirolegian Euskal Herriko Sokatirako Lur gaineko bigarren kanporaketa jokatu zuten eta Abadiño nagusitu zen hasieratik

NEREA URBIZU

Euskal Herriko lurgaineko Sokatira Txapelketako bigarren kanporaketa atzo Ibarra jokatu zuten eta bertan, Auzolan taldeak finaleko txartela lortu zuen. Dena dela, atzoko indartsuenak, epaileen arabera, Abadiñoak izan ziren.

Bederatzi talde zeuden eta bitan banatu zituzten. Lauko taldeak osatuta, bata bestearen aurka jokatu behar izan zuten. Aurreko kanporaketa lehengo asteburuan izan zen Aizarnazabalen eta Mikel Azarola epailearen arabera, «Auzolan taldea hobe ibili zen». Honen arrazoi nagusia Abadiñoak erakutsi zuen maila «ona» izan zen.

«Aurreko astean Abadiñoak maila okerragoa erakutsi zuen, eta ondorioz, atzo jakin izan zuten nola jokatu. Aldaketak egin ditu, aurreko asteburuan ez baitzekiten zer nolako maila izango zen bertan».

Aizarnazabalen mailen arteko aldeak «handiagoak ziren», eta «Abadiñoak alde horiek berdindu egin ditu».

Abadiño faboritua

Auzolan taldearekin batera, Abadiño A, Abadiño B, Abadiño C, Sokarria eta Gaztedi aritu ziren Ibarrrako kiroldegian. Guztien artean, Mikel Azarola epaileak esan bezala, «Abadiño da faboritua».

Auzolan taldeko ibartarren saioa ona izan da, baina epaileek esan bezala «aurreko asteburuan hobe aritu ziren».

Atzoko kanporaketan Brinkolako Mikel Azarola, Urdazubiko Patxi Bengoetxea eta Errenteriako Joxe Antonio Matxain izan ziren, eta orokorrean maila «ona» izan zela aipatu zuten.

Finala Oartzunen, igandean

Lur gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketako finala datorren asteburuan jokatu dute Oartzunen. 11:00etan izango da bertako kiroldegian, igandean.



Mikel Azarola epailea, atzo. N. U.



Abadiño 3 taldeak oso indartsu joan ziren Ibarra, Aizarnazabalgo kanporaketan ikusitako maila erreferentziatza hartuta. N. U. RBIZU



Aizarnazabalgo talde bat tiraka. Saioko azken tirada izan zen honakoa. N. U.



Hotzari jolasekin aurre eginez

ANOETA » Abenduaren 2an Anoetan AHTren inguruan egingo duten herri galdeketa hari, ekitaldi ezberdinak antolatuta dituzte herrian. Atzokoan, esaterako, etxeko txikiengazko txanda izan zen eta joko desberdinak egin zituzten. Goizean, esaterako, pilotak egin aritu ziren —irudian—. Arratsalde partean

txokolatada eta jolasak egin zituzten. Antolatzaileak «gustura» zeuden plazara gerturatu zen gazte kopurua ikusita. Halaber, plazan bertan panel informatibak jarri zituzten, kamiseta eta DVDkin. Gaurkoan, berriaz, VII. herriko baseritar eta artisauen azoka egingo dute, ondoren bazkaria egingo dutelarik. N. LATABURU



TOLOSAK OUDALA

REGARRIA

Tolosako Udalak, UDALTZAIN LAGUNTZAILEAK Lan poltsa bat egiteko asmota du.

BETEBEHARRAK:

- 16 urte beteta izatea.
 - Eskola graduatua, lehen mailako lanbide heziketa edo baliokidea den ikasketa titulua edukitzea.
 - Lanpostuaren funtzioak eta eginbeharrak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea.
 - Euskara jakitea, lanpostuaren eginkizunak zuzen betetzeko beharrezkoa den mailan (2. Hizkuntz Eskakizuna).
- Baldintza hau egiaztatzeko, bidezko den azterketa egingo zaie izangaiei, Tolosako Udaletxean, 2007ko abenduaren 11an, goizeko 9tan.

BALORATUKO DIRA:

- Lanpostuaren eginbeharrekin zerikusia duten ikastaroak.
 - Larrialdi edo Babes Zibileko zerbitzuetan esperientzia izatea.
 - Kirol gertaera, ikuskizun publiko edo konzentrazio handietako antolamenduan parte hartu izana.
 - Beste edozein lan esperientzia lanpostuarekin erlazioa duena
- Eskara egiteko orriak, Tolosako Udaletxeko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrra 6 A zkin, edota udaleko web orrian (www.tolosakoudala.net), eta Tolosako Udaletxeko Informazio eta Erregistro 2007ko azaroaren 28ko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira

Eskaraekin batera aurkeztu behar ditu betebeharreko a) eta b) apartatuetako agiriaren fotokopiak (NANA eta titulua), eta eskaeran jartzen dituen balorakizunen kurrikuluma.

Tolosan, 2007ko azaroaren 14an

ALKATEA

JOKIN BILDARRATZ SORRON

E Elkarrizketa

MIKEL OLAZABAL ▶ Pilotaria



UR ALGUERO

«Asko eskertzen dut lesionatu nintzenez izandako laguntza»

Areso ▶ Debutatu duenetik bi hilabetera punta-puntako partidetan jokatzeko ari da aurrelaria eta Martinez Irujo ere mende hartu du aresoarrak

UR ALGUERO

Mikel Olazabal pilotariak (Areso 1986) une gozoak bizitu ditu. profesionala jautzia egin duenetik bi hilabetera dagoeneko Aspe enpresarekin partidua estelarrak jokatzeko ari da. Elkarrizketa Titin eta Galarzaren aurka jokatu eta bihar munean egingo dago, hamairu tantoan geratu den arren tanto politak egin ditu Olazabalek. Bigarren mailako lau t'erdikoa dator orain.

Bi hilabete eskas pasa dira debutatu egin zenuenetik eta dagoeneko goi mailan ari zara. Hain azkar iritsi zara honaino?

Bueno, orain lau t'erdiko Txapelketan daude eta nik uste dut gehienbat horregatik dela, jendea lau t'erdian dago. Txapelketa handietan ere norbait jarri beharra dago eta beno orain arte nahiko ongi aritu naizenez enpresak aukera eman dit eta gustura. Ez nuen pentsatzen txapelketa handiak hain agudo jokatuko nituenik baino ailegatu naiz eta gustura.

Normalean zer entrenamendu mota egiten duzu?

Entrenatu eguneroko, fisikoa ez bada frontoian eguneroko. Igandea bada

pixka bat deskantsatzen dut baino entrenatu korrika edo pesak edo pilotan eguneroko zerbait egiten dut. **Zure ustez zein dira zure dohai nagusiak?**

Hori beste batek esatea nahiago dut. Saiatzen naiz ahal dudana egiten eta gauza onak besteek esan ditzatela.

Denboraldi honetarako zure buruari helbururik jarri al diozu?

Ez, ez daukat inongo helbururik. Orain arte nahiko ongi ari naiz jokatzeko eta emaitzek ere lagundu egin didate eta hemendik aurrera ere jartzen dizkidan partiduetan ahal den hobeak jokatuko, ahal baldin bada irabazi eta aurrera. Orain lau t'erdikoa hasiko dugu baino ez dut batere presiorik eta ez diot nire buruari jarri nahi. Ahal dena irabazten saiatu ongi jokatuz eta galtzen baldin badut ez da deus pasatzen.

Alde handia nabaritu al duzu amateur mailatik profesionalera?

Bai, alde handia dago. Batik bat erritmoa beste bat da, askoz azkarrago ibili behar duzu, aurkariak gehiago defendatzen dira pixka bat deskuidatzen bazara edozein tontoa agudo egiten dizu eta

bueno ez dago despistatzerik, erne ibili behar da eta ongi prestatuta joan.

Leitzako pilotari eskolan aritu zara, bertan ikasi izanek laguntzen al du?

Bai, ni bertan hamar urterekin hasi nintzen entrenatzen eta betidanik oso ongi tratatu nauten denek, bai lehengoak eta baita orain ere. Ongi erakutsi, asko lagundu... Lesio izan nunean ere asko lagundu zidaten eta bueno, beraiekin oso gustura.

Pilotan profesionalera iristeko asmoa duen gazte bati zer aholkatuko zenioke?

Presaka ez ibiltzeko esango nioke, hau beste maila bat dela eta hemen normalena hasieran behintzat ezinean ibiltzea dela. Enpresa beti partidua parekatzen joaten da eta irabazi behar duenak lan asko egin beharra dauka, asko sufritu. Kirol polita da baino esigintea eta gogorra ere bai eta presaka ez ibiltzeko, lasai ibiltzeko, lasi hartzeko gauza eta aurrera segitzeko lanean **Erraza al da pilota eta ikasketak uztartzea?**

Gogoia izanez gero zaila ez da. Ni modulo bat egiten ari naiz eta goizean eskolara joaten naiz, arratsaldean izaten dut nahikoa denbora entrenatzeko eta ez dago arazorik alde horretatik.

Deskribatu zure ohiko egun bat.

Goizean jaiki, zazpiretan, gero eskola joaten naiz etori bazkaldu eta siesta pixka bat egiten dut. Siesta

egin eta gimnasia edo korrika joaten naiz, segun zer tokatzen den frontoira entrenatzera edo... Eguneroko zerbait entrenatu etagero etxe inguruan ardiekin edo gurazoei zerbait lagundu eta horixe cda nire eguneoko bizitza.

Zer eman dizu pilotak?

Egun polit asko debuta behintzat nik uste nire biziko egunik hobena, eta bestela ere ba lagun asko eta bueno, sufritu ere egiten da. Lesio eduki nunean asko sufritzea tokatu zitzaidan baina orain profes-

Goi mailako pilotari asko lau t'erdikoan daude eta ongi aritu naizenez bertan jarri nau enpresak

Profesionalan azkarrago ibili behar da, gehiago defendatu, edonork egiten dizu tanto

Lesionatu nintzenez une gogorak ziren eta ez nekien jarraituko nuen ere

sionaletan nahiko ongi hasita disfrutatzen ari naiz eta bueno egun polit asko baina txar asko ere bai.

Eta zer kendu dizu?

Kendu deus ez. Afizio handia daukat, hauxe da gustatzen zaidan eta beti gustura ibili izan naiz.

Zure ustez lesiotik erabat osatu zara?

Bai. Badaezpada ere pixka bat bendatuta jokatzeko eroritakoan berriz hautsi ez dakit baino behartu edo egin gabe aritzeko. Batere ikararik ez eta minik ere ez.

Zer duzu lesioaren garaiei buruz esateko?

Batez ere jendeak asko lagundu zidala. Orain momentu politetan eta jendeak laguntzea erraza izaten da baino lesioa eduki nunean eta batere jokatzeko ez nunean ez nekien pilotan segitzeko ere izango ote nuen. Operatu eta pelotan haserako zortzi hilabete pasa ziren eta ez nekien nola jarriko nintzen ere, baina jendeak asko lagundu zidan eta eskertzekoa da.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Adunan, 70 m²ko etxebizitza. 25 m²ko atikoarekin. 608 575900.

■ **Etxebizitza.** Tolosan, 93 m²ko etxebizitza. Hiru logela, komuna, sukialdea eta saloia. 35.000.000 pezeta. Interesatuak deitu 630 580 267 telefono zenbakira.

■ **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa. Interesatuak 669 673649 telefono zenbakira deitu.

■ **Autoa.** Peugeot 206 GTI. 4 urte. 7.500 euro. Aukera bikaina. Interesatuak deitu 656 410280 telefono zenbakira.

LANA

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko emakumea behar da. 620 619102.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur asteak

■ **Ibarra.** Gaztetxearen XIV. urte-mugako Kultur Astea: 16:30ean Mahai Tenis Txapelketa eta ondoren, gaztain jatea egingo da Gaztetxe kanpoan.

■ **Amezketeta.** Goizean zehar eta Kultur Astearen baitan azoka izango da plazan. Bertan, animaliak, barazkiak, erakusketak, taloak... izango dira goizean zehar.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Kilometroak 2008ko lelo eta logotipoaren aurkezpena Leidor aretoan 11:00etan. Diseinatutako arropa erakusteko moda desfilea eta sorpresak. Antolatzailea: Irurako Ikastola.

■ **Tolosa.** Babarrunaren gastronomi lehiaketa Ferialekuan 11:00etan; 12:00etan aizkolariak Beotibar pilotalekuan; 14:00etan bazkariak Ferialekuan eta Zerkausian; 21:00etan afaria Zerkausian, *Gastronomiaren onena* Donostiako kongresuaren irekiera.

■ **Anoeta.** AHTri buruzko ekitaldien barruan, herriko nekazari eta artisauen azoka eta musika topaketa plazan; arratsaldean erromeria eta talo jatea.

Zinema

■ **Tolosa.** *Lassie* haurrentzako filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan.

Atzo amaitu zen IV. Gorren Sentsibilizazio Astea; azken egunean, herri kirolak, bazkaria, antzerkia eta dantza izan zituzten besteak beste.

Herri kirolean trebeak

ERREDAKZIOA

Ekitaldiz betetako hainbat egunen ondoren, atzo amaitu zuten Gorren Sentsibilizazio Astea. Eguna asteko, nahiko izerdi bota zuten atzo, Beotibar frontoian egindako herri kirolean. Esku pilotan, sokatiran... aritu ziren 50 lagun inguru.

Nahikoa nekatu ostean, Babarrun Astea dela aprobetxatuz, babarrunak bazkaltzera joan ziren denak, indarrak berreskuratzeko asmoz. Arratsaldean berriz, *Quiérase oyente* laburmetraia ikustera joan ziren guztiok. Horrez gain antzerki emanaldiak ere ikusi zituzten. Horien artean, *Joklo* artista, Pariseko aktore eta Atzegi antzerki taldekoak izan ziren Leidor antzokian.

Ikusmenaz gozatu ondoren, berriro, dastamenarekin gozatzera joan ziren. Hala, Kasino elkartearen afaria egin zuten. Afal ostean, musika eta umorearentzako tartea egon zen Parisko dantzari eta musikariei esker. Frantziarrek batera izan ziren ere Lituaniako dantzari eta aktore taldea. Azken hauek ikuskizun berezi bat eskaini zuten ostiralean ere.



Gorren Sentsibilizazio Astearen baitan herri kirolak egin zituzten atzo. E. EZBIZA

» GUARDIAKO FARMAZIAK

GAUR

■ Arribe.

Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ Irurtzun.

Gastarena, M. Amaya kalea, 112.

■ Ibarra.

Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

BIHAR

■ Lekunberri.

Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

■ Tolosa.

Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Zorionak!

Maren Olaetxea Mendizabal (Lizartza) Dagoeneko 4 hilabete, gaur bataio eguna. Muxuak familiaren partetik.



Urte askoan!

Judith Val Sarasola (Asteasu). Gaur 3 urte. Zorionak eta muxuak etxeko erreginari.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

hitza ren eskutik

PIRRITX eta PORROTZ

PANPINAK

eta DVDa etxeko txikiek jolasteko



"Mari Motots"
ikuskizunaren DVDa

18€



Pirritx eta Porrotz
(motxila opari)

40€



Pirritx
(poltza opari)

20€



Porrotz
(poltza opari)

20€

Egin eskaria amaitu baino lehen
902-82 02 01

hitza info